



2014ko urtarrilean Kalakan taldekoek ireki zuten txotx-denboraldia. Orduan sagardogile gehiago zeuden mahaiaren atzean :: LOBO



Aurten Eneko Atxa sukaldaria izan da ohoratu. :: LOBO

BATASUNETIK URRUTI

Sagardoaren Lurraldea erakundeko sagardogileen erdiek alde egin dute. Ematen zuen sektorea baretzen ari zela, baina...

Goiko bi argazki horien artean alde handia dago. Argazki batean sagardogile asko ageri dira paretaren kontra; bestean, gutxiago. Zer gertatu ote da?

Bi argazkiak Astigarragan eginak dira, txotxaren irekierra-ekitaldian. Zutik dauden sagardogile horiek, bi kasuetan, Sagardun kontsozioak kideak dira, hau da, Sagardoaren Lurraldea marka turistiko eta kulturalaren barruan sartuta daudenak. Eta, hain zuzen, Sagardoaren Lurraldea da Astigarrago ekitaldi entzutsu hori antolatzen duena. Goiko argazkian ikus daitekeen bezala, 2014ko urtarrilean —ezke-

rraldetik hasita— gutxienez, Zelaia, Petritegi, Lizeaga, Mina, Zapiain, Rezola, Bereziartua, Alorrenea, Gartziategi eta Txopinondo zeuden Sagardoaren Lurraldean; eta baita Gurutzeta ere, baina bertako ordezkaria, Joxe Angel Goñi, eserita egoten da, bera baita sagar-uztaren eta sagardo berriaren ezaugarriak azaltzeko arduraduna. Dena dela, argazkian agertzen diren sagardogileak ez dira diren guztiak, izan ere Sagardoaren Lurraldeko partaide ziren baita ere Sarasola (Astigarraga), Gaztañaga eta Saizar. Beraz, Astigarragako sagardotegi asko eta Hernaniko, Usurbilgo eta Azkaingo sagardotegi

bana.

Aurtengo urtarrileko argazkian, sagardogileak askoz gutxiago dira. Ezkerretik hasita, Zapiain, Zelaia, Txopinondo, Alorrenea, Mina, Gartziategi eta Rezola daude; eta, eserita, Gurutzeta. Berez, orain bederatzi kide dira Sagardoaren Lurraldean, eta argazkian lagun bat falta da: Etxeberria sagardotegiko ordezkaria.

Zer gertatu da taldea horrenbeste murrizteko? Iaz, Bereziartuak esan zuen bera bazihoala. Urte berriarekin batera, Petritegi, Lizeaga, Astarbe eta Saizarrek egin dute alde.

Orain bederatzi sagardotegi

dira Sagardoaren Lurraldeko kide, Udaltza (Astigarraga) eta Astigarragako zenbait kultur eta kirol-elkarte: Astigar E.O.E., Gure Izarra, Goldea Herri Kirol Batzordea, Mundarro Kirol Elkartea, Norberto Almandoz Musika Eskola, Xagu Xar eta Zipotza Kultur Elkartea. Erakundearen lehendakaria Astigarragako Udaltza ordezkaria da, Zorione Etxezarraga; alkateak, Jesus Mari Santosek (EAJ), kargu horretako dimisioa eman zuen duela egun gutxi, eta Etxezarragak (zerrendako bigarrena) hartuko du arduraz hori hil honen bukaera aldera.

Kontuan izan behar da iaizko urtean Hernaniko eta Usurbilgo

Udalek lankidetzaz hitzarmena sinatu zutela Sagardoaren Lurraldea erakundearekin, eta marka kultural eta turistiko hori indarturik ateratzeko zela. Halaxe, azkenaldian erakunde horren ekimenak beste bi herri horietara zabaltzen hasi dira. Gainera, bi Udaltza horiek kolaboratzen hastekoak ziren Sagardoaren Lurraldearen ekimen sonatuetako batean: Sagardoetxea museoa.

Ikusi egin beharko da aurrerantzean zer gertatzen den, baina sagardogileen erdiek alde egin izanak ahalbidea utzi du erakunde. Gainera, kontuan hartzen badugu taldean jadanik ez dagoela Usurbilgo sagardotegirik...

Zail da jakiten zehatz zer gertatu den. Txori batek esan dit halako lehia bat ere badagoela —edo bazegoela behintzat— Basquetour eta Sagardoaren Lurraldearen artean, azken batean elkarri konpetentzia egiten baitote turismoaren arloan. Basquetour, Eusko Jaurlaritzaren ekimena da.

Beste batek, berriz, kontatu dit bileretan bi ikuspegi agertzen zirela, kontrajarrita daudenak: «oso Astigarragako gauza bat egin» eta «Astigarragatik kanpora zabaldu». Azpi-azpian eta hondo-hondoan aspaldiko arazoa dago, jakina: bi bando daudela, batetik Gipuzkoako Sagardogileen Elkartea, bestetik Sagardo Mahaia. Tarteka aipatzen da sektorearen batasunaren beharra, baina erreallitatea besterik da.

Iaz, Sagardoaren Lurraldeak hala erabakita, lehenbiziko aldiz Astigarragatik kanpoko sagardotegi batean egin zen txotx-irekierra ofiziala. Hernaniko Zelaian, hain zuzen ere. Orduan, izan zen aurka agertu zen sagardotegirik.

Beraz, orain denbora asko ez dela, hilaren 9an izan genuen inpresio baikor hura epeldu egin zaigu pixka bat. Gogoan izango dugu: egun hartan Euskal Sagardoa jatorri-deitura aurkeztu zuten Eusko Jaurlaritzak eta hiru diputazioek, eta adierazi ziguten 35 sagardotegi agertu direla prest 100%ean bertako sagarra izango duten kalitateko sagardo mota berri hori ekiteko. Argazkian bi taldeetako aurpegiak ageri ziren, denak irribarretsu.

Beraz, bai Elkarteko sagardotegi batzuk, bai Gorenak zigituko zenbait, prest agertu dira Euskal Sagardoa egiten hasteko. Orain jakin izan gelditzen da Elkarteko zenbat sagardotegi hasten diren Gorenak zigiturako lanean. Jakina denez, Gorenak kalitate-marka jadanik ez da Sagardo Mahaiarena, baizik eta publikoa, eta Hazi Fundazioa kudeatzen ari da.

Ezer ulertu al duzue? Ez da erraza. Onena izango da txotxetik edatera joatea, lasai. Bakoi-tzak honezkero izango du bere sagardotegi kuttuna, eta bertara joan dadila. Bestela ere izaten baitugu nahiko buruhauste.

fibargutxi@diariovasco.com